

16-17

Zaragoza Fuentes de Ebro

30,2 Kms

Gure pobrezia oso handia izan arren, ezin ditugu txikitu gaixoen ongizaterako gastuak.

Etapa 16

Harrera-Tokiak

Datu Interesgarriak

Ignazioaren arrastoak

Iruzkinak

Etapa 16

El punto de salida es la Basílica de El Pilar y nos dirigimos hacia el paseo junto al río Ebro, dejándolo a nuestra izquierda todo el rato. Caminamos por el Paseo de Echegaray y Caballero, bajo el puente de Camino de las Torres, hasta pasar bajo el puente de la Ronda de la Hispanidad y seguimos todo recto por el camino de tierra llamado «Camino Natural La Alfranca». Señales del GR-99 y postes señalando La Alfranca nos guían sin pérdida alguna.

A 5 km de Zaragoza pasamos por debajo del puente de la Z-40. Seguimos siempre junto al río sin tomar caminos laterales. Siempre junto al río, llegamos a un cruce en el que giramos 90 grados a nuestra derecha: está bien señalizado y además se ve el campanario de la iglesia de la Cartuja Baja justo delante de nosotros, a 800 m. Llegamos hasta la fachada principal de la Cartuja y giramos a nuestra derecha, tomando el Camino de los Muros, que nos alejará en dirección a Burgo de Ebro. Tomamos el camino de tierra que se abre delante de nosotros y lo seguimos para en 500 m pasar un túnel.

Aurrera jarraituko dugu asfaltatu gabeko gure bidetik. Bidea sardetu egiten da: eskuinekotik gora joango gara eta GR seinaleei jarraituko diegu. Zuzen jarraituko

dugu, alboko biderik hartu gabe. 2 km-ra, trenbidearekin eta autobidearekin topo egingo dugu berriro, biak eskuinera. Zubi bati esker hauen ondotik pasa, eta zuzen jarraituko dugu. Galacho Industrialdean gaude.

Dena zuzen jarraituko dugu, beti autobidearen paraleloan. Biribilgune batera iritsiko gara: autobidearen azpitik Torre de Barraconera sartuko ginateke, baina ez dugu hori egingo. Guk zuzen jarraituko dugu, autobidearen paraleloan. Autobidea hemen bukatzen da eta N-232 bihurtzen da. Bide hori jarraituz Burgo de Ebrora iritsiko gara.

Zaragozatik atera gintuen Castelloko errepide berak sartuko gaitu Burgon eta alde batetik bestera igaro. Irten errepide horretatik eta irteeran kirol-instalazio batzuen ondoan (igerilekuak, futbol zelaia) asfaltatutako pista bat hasten da gure ezkerrean, pinuak dauden parke batera iritsiko gara. Zuzen jarraituko dugu gure eskuinetik igoaz. Kilometro batera bidegurutze bat aurkituko dugu dorre elektriko baten ondoan: ezkerrean hartuko dugu. Bideari jarraituko diogu, bihurgune handia egiten du Virgen de la Columna urbanizazioa inguratzeko, gure eskuinean izango dugu ermita.

Cabañeta arkeologia aztarnategiaren ingurutik igaroko gara, erromatarren arrastoak aurkitu dira hemen, K.a. II. mendekoak. Ezkerrean utziko ditugu eta aurrera jarraituko dugu. Bidegurutzea: beti aurrera jarraituz, ARA-1 autobidea goratzen duen zubiaren azpitik pasako gara, ezkerrean dugun ureztatzeko kanala igarotzeko.

“El Espartal” industrialdean sartuko gara. Kanala gure ezkerrean izango dugu. Kanalaren gainean dagoen zubi txiki baten parean gure eskuinera hasten den bidea hartuko dugu. “Cañada Real las Peñas” delakoan egongo gara.

Industrialdearen amaiera errepideak eskuinera egiten du, baina guk zuzen jarraitu eta kanala igaroko dugu. Gure aurrean izango dugu Fuentes de Ebro. Lurrezko bidetik jarraituko dugu, beti aurrera, herrirantz, trenbidea gurutzatzen duen asfaltatutako zubi bat ikusi arte. Ez dugu gurutzatuko, baizik eta zubitik 250 m-ra, gure ezkerrean bide bat hasiko da eta hortik zuzenean herrira joan ahal izango gara.

Bideak trenbidera eramango gaitu. Fuentes aldera jarraituko dugu. Bi eraikinen artetik igaroko gara eta trenbidearen gainerako zubira gerturatuko gara. Gurutzatu eta herrian sartuko gara. Francisco de los Ríos kalea jarraituz, N-232

errepidearekin topo egingo dugu, eta bide honek herria igarotzen du alderik alde.

Harrera-Tokiak

FUENTES DE EBRO

Ayuntamiento . Tel: 976 169 100.

Hostal Elena** . Avda. Santiago Lapuente 9-11, Tel: 976 160 267 / 628 478 199.

Hostal Patio** . Calle de los Sitios 37, Tel.: 976 161 065

Hostal San Miguel . Calle de Trinquete 8, Tel: 976 169 071

Hostal Texas . Mayor 15, Tel: 976 160 419.

Taxi Taxiva . 627 57 42 90

ZARAGOZA

Cooperativa de Auto Taxi . Tel: 976 751 414

Radio Taxi 24h . Tel: 976 424 242

Datu Interesgarriak

LA CARTUJA: Bere garaian monasterio izana, Andre Maria Sortzez Garbiari (XVIII. mendekoa) eskainia. Klaustroko galeriak kaleak dira gaur egun, eta erlijioso kartusiarren gelak, etxebizitzak. Jatetxe-taberna daukagu.

BURGO DE EBRO: Herri txiki honetan jatetxea, osasun-etxea, supermerkatua eta banketxea daude.

FUENTES DE EBRO: San Migel Goiaingeruari eskainitako eliza ikustea merezi du, Ostegun Santuko monumentu eukaristiko eder batekin (XVIII. mendekoa), Arrosarioko Andre Mariaren kaperan. 4.600 biztanle inguru ditu herriak eta jatetxeak, botikak, osasun-etxea, supermerkatuak eta banketxeak daude.

Ignazioaren arrastoak

Oharrak: Jesusekin oinez jarraitzen dugu, argiago ikus dezagun, sakonago maitatu eta gertuagotik jarraitu. Ez dezagun "prestatzeko otoitza" ahaztu otoitz

egiten hasi aurretik eta egunean zehar. Gogoan izan behar dugu amaierako elkarrizketa gero eta garrantzitsuagoa dela: Jesusen barneko ezagutza horretan sartzen ari gara eta horrek emango dio indarra gure bizitzako konpromisoari. Hau eztabaidatuko dugu gure “adiskidearekin” otoitzeko azken elkarrizketan eta egunean zehar.

Eskaria: Aitari eskatzen diot Jesus ekar diezadala bere erronka entzun eta uler dezadan, bere abenturaren zirrara sentitu eta Bera eta bere herria zerbitzatzeko grina bizia sentitu, bere zortea eta sufrimendua partekatuta.

Hausnarketak: Ebanjelioek esaten digutenez Jesus Galileako lakuaren ertzean zebilen eta itsasora sareak botatzen ari ziren bi ikasleri egin zien dei: “Zatozte nirekin eta giza arrantzale egingo zaituztet”, eta haiek, besterik gabe, sareak utzi eta jarraitu egin zioten. Jesus hau harrigarriro konbentzigarria da eta arrantzaleek sareak utzi, beraien aurreko bizitza utzi eta Jesusi jarraitu zioten bizi berrirantz, erromesaldi berrirantz. Otoitz egin dezagun Jesus hau hobeto ezagutzeko, bere deiaren erakargarritasunaz ikuspegi sakonagoa izateko, eta Berarekin egoteko nahi gero eta handiagoa sentitzeko grazia eska dezagun gure bizitzako erabakietan “nik nahi dudana” gutxiagotan eta “Jesusekin egoten eta Jesus bezala egoten lagunduko didana” gehiagotan esan dezagun.

Erregearen jarraitzaileei asko eskatuko zaie. “Beharrezko gauza bakarra” eta utzi beharreko “gauza bat gehiago” zein diren ikusi beharko da. Erronka hauez hausnartuaz nire barne erromesaldian gertatzen ari diren barne mugimenduei adi egongo gara. Nora noa? Badakit nora noan? Axola dit?

Testuak:

Lukas 9:57-62. Jesusen ikasle izateko bidean gera ez nadin erregutzen dut.

Lukas 10: 1-9. Ondoren Jaunak beste hirurogeita hamar izendatu zituen eta bere aurretik bidali.

Lukas 10:38-41. Jesusek esaten dit: “Gauza bat bakarra da beharrezkoa.” Nire erronka Marta eta Maria bezala bizitzea da, ekintzaren kontenplazioa, Jauna aktiboki zerbitzatzea Berarekin etengabeko intimitatea izateak sustatzen baitu.

Markos 10:17-27. Bizimodu onbera eta leiala duen gizon bati maitasunez begiratu eta Jesusek erronka egin dio hitz hauekin “Gauza bat bakarra falta zaizu” eta niri

ere egiten dit erronka. Badakit zer esan zuen Ebanjelioko gizonak. Orain neure testuinguruan Jesusek “gauza bat bakarra falta zaidala” nola esaten didan entzungo dut.

Amaierako elkarrizketa: meditatutakoaren laburpen bat egin otoitzeko tartean, Jesusekin adiskide batekin bezala hitz eginda. Egindako bide zati honetan aurkitutako puntuez bihotza ireki berari. Hala sentituz gero, bere ikurrinaren pean hartzeko eskatuko diogu Jesusi. Amaitzeko, Aita Gurea esan.

Iruzkinak

Leave a Reply

Your email address will not be published. Required fields are marked *

Comment *

Name *

Email *

Website

Δ

[Bizikletaz egiteko erraza](#)

baina kontuz ibili behar da Zaragozatik A-68tik irteteen.

Zaragoza (El Pilar): Km 0.


Cartuja Baja: Km 9,3.

Burgo de Ebro: Km 16,9.

Fuentes de Ebro: Km 30,2.

Bidea

Etapa eskema



Altimetria



Ebroko Iturrietako eguraldian

[bidea ikustea wikiloc](#)

[gps-a deskargatzea](#)

[MapOut deskargatzea](#)

Galeria

Etapako Argazkiak













































[aurreko etapa](#)

[hurrengo etapa](#)